

Euskampus Bordeaux Eguna

euskampus  FUNDAZIOA

 Universidad
del País Vasco

 Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARTE
EDERREN
FAKULTATEA

20

Bilbao School of Engineering UPV/EHU
13-14 Azaroa / Nov. 2023

23

#EuskampusBordeauxEguna
www.euskampus.eus

TransfrontART



euskampus
FUNDAZIOA

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

DIPC

tecna:ia
HUB OF KNOWLEDGE & INNOVATION
& TECHNOLOGY ALLIANCE

université
de BORDEAUX

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUROREGION
EL DUESKUALDIA
EURORREGION

Nouvelle-
Aquitaine

“TransfrontART” deialdia antolatzen da urtero egiten den Euskampus Bordeaux Egunaren baitan, topaketa horren helburua izanik partekatzea, ikusaraztea eta balioa ematea UPV/EHUren, Bordeleko Unibertsitatearen, DIPCen eta TECNALIAren arteko mugaz gaindiko aliantza estrategikoaren barruan egiten diren proiektuei eta kolaborazioei (agregazio horren baitan sarturik Euskampus Fundazioaren Patronatu osoa eta haren erakunde kolaboratzaileak).

Deialdi hau koordinatzeaz arduratuko da Euskampus Fundazioa, **UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatearekin batera.**

La convocatoria “TransfrontART” se plantea en el marco del encuentro anual Euskampus Bordeaux Eguna, siendo este una oportunidad para compartir, visibilizar y poner en valor el conjunto de proyectos y colaboraciones que se desarrollan en el marco de la alianza estratégica transfronteriza entre la UPV/EHU, la Universidad de Burdeos, el DIPC y TECNALIA, extensible a todo el Patronato de Euskampus Fundazioa y sus entidades colaboradoras.

La coordinación de la presente convocatoria recaerá en Euskampus Fundazioa junto a la **Facultad de Bellas Artes de UPV/EHU.**

Deialdi honen xedea da gehienez ere 20 artista hautatzea: Euskampus agregazioaren erakundeetako (UPV/EHU, Bordeleko Unibertsitatea, DIPC, TECNALIA, IKERBASQUE, gehi Euskampus Fundazioa) graduako, masterreko edo doktoregoko ikasleak, irakasle-ikertzaileak edo administrazio eta zerbitzuetako langileak.

Hautatutako artistek parte hartuko dute 2023 Euskampus Bordeaux Eguna dela-eta azaroaren 13an eta 14an egingo den mugaz gaindiko arte erakusketan, UPV/EHUren Bilboko Ingeniaritza Eskolan.

ARTE DIZIPLINAK

Deialdia zabalik dago arte diziplina hauetan aritzen diren artistentzat:

Arte bisualak:

- Pintura, marrazkia, grabatua
- Ilustrazioa (artistikoa, zientifikoa, publizataria, etab.)
- Arte digitala
- Argazkigintza (artistikoa, zientifikoa, dokumentala, etab.)
- Arkitektura proiektuak
- Ikus-entzunezkoa (bideoarte, fikzio eta ez-fikzio piezak)
- Diseinu grafikoko proiektuak

Komikia eta literatura edo argitalpen lan laburrak, erakusteko modukoak (poemak, aldizkariak, fanzineak, etab.).

Paretan jarri/zintzilika daitezkeen beste diziplina batzuetako proiektuak.

La presente convocatoria tiene por objeto seleccionar hasta un máximo de 20 artistas -estudiantes de grado, máster o doctorado, personal docente investigador o pertenecientes a la administración y servicios de las entidades patronas de la agregación Euskampus (UPV/EHU, Universidad de Burdeos, DIPC, TECNALIA, IKERBASQUE, extensible al universo Euskampus Fundazioa)-.

Los/as artistas seleccionados/as formarán parte de la exposición de arte transfronteriza que tendrá lugar en el Euskampus Bordeaux Eguna 2023, los días 13 y 14 de noviembre, en la Escuela de Ingeniería de Bilbao de la UPV/EHU.

DISCIPLINAS ARTÍSTICAS

Se podrán presentar a la convocatoria aquellos/as artistas que desarrollen su obra en las siguientes disciplinas artísticas:

Artes visuales:

- Pintura, dibujo, grabado
- Ilustración (artística, científica, publicitaria, etc.)
- Arte digital
- Fotografía (artística, científica, documental, etc.)
- Proyectos de Arquitectura
- Audiovisual (videoarte, piezas de ficción y no-ficción)
- Proyectos de Diseño Gráfico

Cómic y trabajos literarios o editoriales breves con posibilidad de ser expuestos (poemas, revistas, fanzines, etc.).

Proyectos de otras disciplinas que puedan ser ubicadas/colgadas en pared.

OBRAREN IKUSPEGIA

Honako hauek lantzen, ordezkatzeko, proposatzen edo islatzen dituzten proiektuak/obrak onartuko dira:

Gizarte osoari eragiten dioten **aurrerapen teknologikoak eta digitalak** (adibidez: digitalizazioa, adimen artifiziala, Big Data, robotizazioa, etab.).

Ingurumenaren eta energiaren erronkak (adibidez, klima-neutraltasuna, ekonomia zirkularra, elikadura-segurtasuna, animalien zaintza eta ongizatea, etab.).

Justizia eta gizarte-koherencia (adibidez: genero-berdintasuna, aniztasuna, migrazioa, zahartze osasungarria, zaintza-eredu berriak, etab.).

Bereziki baloratuko dira mugaz gaindiko errealitateari eta errealitate hori osatzen duten hizkuntza- eta kultura-aniztasunari buruzko hausnarketaren bidez egindako lanak, aniztasun horren inklusibotasuna eta kontzientzia sustatuz.

HAUTAPEN BATZORDEA ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Hautapen batzordea osatuko dute UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko, Bordeleko Unibertsitatearen eta Euskampus Fundazioko ordezkariak.

Aipatutako baldintzez gain, hautapen batzordeak positibotzat hartuko du obra(k) mugaz gaindiko lankidetzaren baten baitan egin izana edo lankidetzaren horri buruzkoa izatea.

Gainera, positiboki baloratuko da ere egileek parte hartu izana Euskampus Bordeaux Campusean lankidetzekin lotutako proiektu, esperientzia, ekimen edo programetan.

ENFOQUE DE LA OBRA

Se admitirán proyectos/obras que aborden, representen, propongan o reflejen preferentemente:

Avances tecnológicos y digitales que afectan al conjunto de la sociedad (p.ej.: digitalización, Inteligencia Artificial, Big Data, robotización, etc.).

Los desafíos del medioambiente y energía (p.ej. neutralidad climática, economía circular, seguridad alimentaria, cuidado y bienestar animal, etc.).

Justicia y cohesión social (p.ej.: igualdad de género, diversidad, migración, envejecimiento saludable, nuevos modelos de cuidados, etc.).

Se valorarán especialmente aquellos trabajos que, además, se hayan realizado mediante una reflexión sobre la realidad transfronteriza, la diversidad lingüística y cultural que la conforman, fomentando la inclusividad y conciencia sobre dicha diversidad.

COMITÉ DE SELECCIÓN Y OTROS CRITERIOS DE VALORACIÓN

El comité de selección estará compuesto por representantes de la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU, de la Facultad/Escuela homóloga de la Universidad de Burdeos y de Euskampus Fundazioa.

Además de los requisitos mencionados, el comité de selección valorará positivamente que la/s obra/s se haya/n realizado en el marco de una colaboración transfronteriza o bien refiera a ella.

Asimismo, valorarán positivamente la participación del autor/a en un proyecto, experiencia, iniciativa o programa vinculado con las colaboraciones que se desarrollan en el marco del Campus Euskampus Bordeaux.

Deialdia zabalik dago era guztietako artistentzat, bai hasiberriak bai seniorrak, arte munduaren pluraltasuna erakusteko asmoz.

PROZESUA ETA DATA GARRANTZITSUAK

1. Eskaria

Epea: 23/10/20

- Egile bakoitzak aurkeztu ahal izango ditu gehienez 3 obra/proiektu.
- Obrek ezin izango dituzte gainditu DIN A1 neurriak (59,5 x 84,1 cm).
- Aurkeztutako lanak/proiektuak argitaraga-beak izan daitezke, edo beste deialdi batzuetan erakutsiak edo aurkeztuak.
- Obrak kokatu ahal izango dira egileen azterlanen, ikerketa eremuaren, proiektu instituzionalaren edo proiektu pertsonalaren barruan.
- Eskatera helbide honetara bidaliko da: **bordeaux@euskampus.eu**, gai gisa idatzirik "TransfrontART 2023 HAUTAGAITZA", **Abstract** txantiloia betea eta jabetza intelektualaren dokumentua (**laster argitaratuko da**) erantsiz.

2. Erabakia

Argitalpen data: 2023/11/03

- Hautapen batzordeak hautatu ahal izango ditu egile batek aurkeztutako lan guztiak edo horietako batzuk.
- Azken erabakia hautatuei jakinaraziko zaie eskaera egiteko erabili den helbide elektronikoren bidez.
- Artistak ez badu onartzen egokitu zaion erakusketa plaza 10 eguneko epean, beste hautagai bat aukeratuko da.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

La convocatoria está abierta a todo tipo de artistas, tanto noveles como seniors, dando así voz y presencia a la pluralidad existente.

PROCESO Y FECHAS IMPORTANTES

1. Solicitud

Plazo: 20/10/23

- Cada autor/a podrá presentar un máximo de 3 obras/proyectos.
- Las obras no podrán superar las medidas DIN A1 (59,5 x 84,1 cm).
- Las obras/proyectos expositivos presentados podrán ser inéditos o ya haber sido expuestas o presentadas en otras convocatorias.
- Las obras podrán haber sido realizadas en el marco de los estudios, ámbito de investigación, proyecto institucional o como proyecto personal de los/as autores/as.
- La solicitud se enviará al correo electrónico **bordeaux@euskampus.eu**, indicando en el asunto "CANDIDATURA TransfrontART 2023" adjuntando la plantilla de **Abstract** completa y el documento de **propiedad intelectual (proximamente disponible)**.

2. Resolución

Fecha de publicación: 03/11/2023

- El comité de selección podrá elegir todas o parte de las obras presentadas por cada autor/a.
- Se comunicará la decisión final a los/as seleccionados/as al correo electrónico mediante el que se ha hecho la solicitud.
- Si el/la artista no acepta la adjudicación de la plaza en la exposición en un periodo de 10 días se procederá a seleccionar a otro/a candidato/a.
- La resolución del jurado será inapelable.

3. Obren harrera

Bilbotik 100 km-ra baino gehiagora bizi eta 2023ko Euskampus Bordeaux Eguna joaterik ez duten artistek helbide honetara bidali behar-ko dute beren obra:

UPV/EHUko Ingeniaritza Eskola
Escuela de Ingeniería de Bilbao - Edificio II
Paseo Rafael Moreno "Pitxitxi", n. 2/3
48013 - Bilbao

- Erakusketa gunean (UPV/EHUren Bilboko Ingeniaritza Eskola) obrak muntatzeko (azaroaren 13an) eta desmuntatzeko (azaroaren 14an), hitzordua jarriko zaie Bilbotik 100 km baino gutxiagora bizi diren edo erakusketara joateko asmoa duten artistei.
- Erakusketan izan nahi duten artistek izena eman behar-ko dute, [inprimaki hau betez](#).
- Antolakuntzak autobusak jarriko ditu Bordetik erakusketara etorri nahi duten lagunentzat. 50 km-ra baino gehiagora bizi diren obra hautatuen egileei gau bat hotelean ordainduko zaie (azaroaren 13tik 14rako gaua).

JABETZA INTELEKTUALA

Obrak hartzen dituen erakundeak markatutako jabetza intelektualeko irizpideak errespetatuko dira. Artistek irizpide horiek jasotzen dituen dokumentu bat sinatuko dute ([laster argitaratuko da](#)).

3. Recepción de las obras


- Los/as artistas que vivan a más de 100 km de Bilbao y no puedan acudir al Euskampus Bordeaux Eguna 2023 deberán enviar su obra a la siguiente dirección:

Escuela de Ingeniería UPV/EHU, Bilbao
Escuela de Ingeniería de Bilbao - Edificio II
Paseo Rafael Moreno "Pitxitxi", n. 2/3
48013 - Bilbao

- Se citará a los y las artistas que vivan a menos de 100km de Bilbao y/o acudan al evento serán citados para recepción de su obra el día 13 de noviembre. Y se les restituirá el día 14 de noviembre.
- Los/as artistas que deseen acudir al evento deberán apuntarse a través del siguiente [formulario de inscripción](#).
- La organización pondrá a disposición autobuses desde Bordeaux para todos los asistentes al evento. Los autores/as de las obras seleccionadas que vivan a más de 50 km contarán con una noche de hotel 13 al 14 de noviembre a cargo de la organización.

PROPIEDAD INTELECTUAL

Se respetarán los criterios de propiedad intelectual marcados por la entidad receptora de las obras. Los artistas firmarán un documento que recoge estos criterios ([proximamente disponible](#)).



Euskampus Bordeaux Eguna

20
23

Bilbao School of Engineering UPV/EHU
13-14 Azaroa / Nov. 2023

#EuskampusBordeauxEguna
www.euskampus.eus